

Euriari aurre eginez, festa Santa Ritaren omenez

AITZIBER IARTZA

Santa Rita jaiak hasi ziren atzo auzoan. Goizean euria egin zuenez, Trinitate plazako pilota partidak jokatu ez jokatu aritu ziren Alde Zaharra kirol elkar-tekoak. Lurra bustia zegoen arren, kadeteen partida bere-zia jokatu zuten lehenik. Ondoren, esku pilotako infantil mailako finalaren txanda zen. Frontis ondoko koadroak nahiko lehor zeudenez, lehenengo hiru koadroetan jokatzeara-

baki zuten. Elejadedek eta Rekaldek Aranburu eta Aldazabal III.aren aurka jokatu zuten. Elejaldek eta Rekaldek 22-20 irabazi zuten.

Pilota partidez gain, beste zenbait ekitaldi izan ziren atzo. Eguardian trikitilariak ibili ziren kaleak girotzen. Arratsaldean, berriz, haurren txanda izan zen, eta Xirimiri elkarteak jolasak antolatu baizituen.

Bihar, Santa Rita egunez, haren irudia jarriko dute Portaletan.